



Ebazpena, 2021eko urriaren 18koa, Ikastetxe eta Plangintza zuzendariarena, 2020-2021 ikasturtean DBHn gainditu gabeko irakasgaien aparteko proba egiteari buruzkoa,

Maiatzaren 3ko 2/2006 lege organikoak, Hezkuntzari buruzkoak (LOE), 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, pertsona guztiek izan behar dute, hezkuntza-sisteman eta hezkuntzasistematik at, bizitzan zehar prestakuntza jasotzeko aukera, haien garapen pertsonal eta profesionalerako gaitasun, ezagutza eta trebetasunak eskuratu, gaurkotu, osatu eta zabaltzeko asmoz. Hezkuntza-sistemak etengabeko hezkuntza sustatzea du helburu, ikaskuntza beste ardura eta jarduera batzuekin bateragarria izan dadin erraztasunak emanez. Halaber, administrazio publikoek dute ikaskuntza malguaren eskaintzak sustatzearen ardura, hezkuntzasistema inolako titulaziorik gabe utzi zuten pertsonen oinarritzko gaitasunak eta titulazioak eskura ditzaten..

236/2015 Dekretuak, abenduaren 22koa, Oinarritzko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak Oinarritzko Hezkuntzaren berariazko curriculuma eta ebaluazioa ezartzen ditu Lehen Hezkuntzaren eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duen oinarritzko araubidea eragotzi gabe.

Unibertsitatez kanpoko hezkuntzaren arloan premiazko neurriak hartzeari buruzko Errege Lege Dekretuak (31/2020 Errege Lege Dekretua, irailaren 29koa), COVID-19aren pandemiaren ondoriozko egoeran laguntze aldera, pandemiaren iraupenarekin lotzen diren aldi baterako zenbait neurri eta egokitzapen berezi ezartzen ditu.

Aldi baterako neurri horiek eragina dute, beste hezkuntza-eremu batzuen artean, lehen hezkuntzako, derrigorrezko bigarren hezkuntzako, batxilergoko eta lanbide-heziketako maila guztietarako ebaluazio- eta promozio-irizpideen aldaketan, bai eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua, batxiler-titulua eta lanbide-heziketari dagozkion titulazioak lortzeko irizpideetan ere.

Hau honela, Hezkuntzako sailburuordeak, COVID-19ak eragindako krisi-egoeraren aurrean 2020-21 ikasturterako EAEko oinarritzko hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleen ebaluazioa, mailaz igotzea eta titulazioa arautzen dituen jarraibideak eman zituen. Jarraibide horien helburua EAEko ikastetxe guztietako oinarritzko hezkuntzako eta batxilergoko ikasleen aipatutako ebaluazio-, sustapen- eta titulazio-prozesuak egokitzea da aipatutako ikasturterako.

Aipatutako jarraibideen II. eranskinean ezartzen denez, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu ez



dutenek gainditu ez dituzten irakasgaien aparteko proba bat egin ahal izango dute etapari dagozkion ikasketak amaitu dituzten ikastetxean, ondorengo ikasturtean.

**Horregatik,**

**XEDATZEN DUT:**

**1.artikulua.- Xedea**

Ebazpen honen xedea da 2020-2021 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu ez duten ikasleen gainditu gabeko ikasgaien aparteko proba ezartzea eta antolatzea, COVID-19ak eragindako krisi-egoeraren aurrean EAEko oinarritzko hezkuntzako eta batxilergoko ikasleen ebaluazioa, mailaz igotzea eta titulazioa arautzen dituen 2020-21 ikasturterako Hezkuntzako sailburuordearen jarraibideetan ezarritako baldintzetan.

**2.artikulua.- Helburua**

Hemen arautzen den aparteko probaren helburua ikasgaiaren oinarritzko gaitasunak eta helburuak lortzen dituztela frogatzen duten ikasleei gure hezkuntza-sistemako oinarritzko titulazioa lortzeko aukera ematea da.

**3.artikulua.- Parte- hartzaileak.**

2020-2021 ikasturtean DBHko 4. mailan matrikulatuta egon eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua lortu ez duten pertsonak matrikulatu ahal izango dira probak egiteko, baldin eta 2021-2022 ikasturtean titulu hori lortzeko ikasketa ofizialetan matrikulatuta ez badaude.

**4.artikulua.- Probak egingo diren datak eta tokiak.**

Probak 2020-2021 ikasturtean pertsona matrikulatuta egon den ikastetxean egingo dira. Otsailaren lehenengo astean egingo dira, ikastetxearen egutegira egokituta. Probak ikastetxeko eskola-ordutegitik kanpo egingo dira, eta haien ordutegiak ikasleek gainditu gabe dituzten irakasgai guztietara aurkezteko aukera emango die.

**5.artikulua.- Matrikulazioa.**

1.- Matrikulatzeko epea 2021eko azaroaren 15etik abenduaren 15era izango da.

2.- Matrikula 2020-2021 ikasturtean pertsona matrikulatuta egon zen ikastetxean egin beharko da. Matrikula hori egiteko unean, ikastetxeak izangaiari prozeduraren berri emango dio, bai eta onartutako eta baztertutako matrikula-eskaeren zerrenda argitaratuko dela.



3.- Matrikulatzeko epea amaitu ondoren, ikastetxe bakoitzak bere iragarki-oholean jarriko du matrikulatutako pertsonen zerrenda, bai eta atzera bota diren pertsonen zerrenda ere adieraziz atzera bota izanaren arrazoia.

4.- Matrikula egiteko behar den dokumentazioa

- a) Nortasun agiriaren fotokopia
- b) Matrikulazio-orria (ebazpen honen I. eranskin gisa sartuta dagoen ereduaren arabera eta ikastetxeak emango duena). Orri horretan ikaslea 2021-2022 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzera bideratutako irakaskuntza ofizialetan matrikulatuta ez dagoela aditzera emateko adierazpen bat sartu beharko da.

#### **6.artikulua.- Erreferentziako curriculum esparrua.**

236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena (2016ko urtarrilaren 15eko EHAA).

#### **7.artikulua.- Ebaluazio- taldea.**

Ebaluazio-taldea gutxienez epaimahaiburu batek eta irakasgaia esleituta dagoen mintegiko bi kidek osatuko dute. Epaimahaiburuak epaimahaikideen artean izendatutako pertsona izango da idazkaria.

#### **8.artikulua.- Ebaluazioa**

1.- Proba bakoitza honela ebaluatuko da: Gutxiegia (G), Nahikoa (N), Ongia (O), Oso Ondo (OO) eta Bikain (Bk). Horrekin batera, zenbakizko kalifikazio bat emango da, hamarrenak erabili gabe, batetik hamarrera bitarteko eskala batean, eta honako korrespondentzia hauek aplikatuko dira:

- Gutxiegia: 1,2,3 edo 4
- Nahikoa: 5.
- Ongi: 6
- Oso Ondo: 7 edo 8
- Bikain: 9 edo 10

2.- Proba egin ondoren, ikastetxeko zuzendaritzak dagozkion aktak egingo ditu aplikazioan (kalifikazioak eta bertaratze-hutsegiteen aplikazioan), ikastetxean artxibatuko ditu 2021-2022 ikasturteko aktekin batera, eta horien kopia helaraziko dio Hezkuntza Ikuskaritzari.

#### **9.artikulua.- Titulazioa**

2020-2021 ikasturtean ez gaindituta geratu ziren irakasgai guztiak gainditzen dituztenek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua eskuratzeko eskubidea izango dute, eta ikastetxeak aparteko proben ondoren egiten duen lehenengo titulu-proposamenean sartuko ditu, eta aparteko proba horietan egindako azken azterketaren data adieraziko du titulua lortzeko data gisa.

**10.artikulua.- Tiktuluaren kalifikazioa**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-tituluan lortutako kalifikazioa etapan zehar lortutako kalifikazio guztien batez besteko aritmetikoa izango da, bi hamartarrekin kalkulatuta, aparteko proba hauetan lortutakoak barne.

Vitoria- Gasteiz, 2021eko urriaren 18a

Eugenio Jiménez Ibáñez  
IKASTETXE ETA PLANGINTZA ZUZENDARIA